



## 56 atxilotu, horietako bi Euskadin, haur pornografia banatzeagatik

Espainiako Poliziak 56 gizon atxilotu ditu, sarean haur pornografia banatzeagatik. Atxilotetako bat Barakaldon bertan egin dute. Poliziak emandako datuen arabera, oso ume txikiri egindako abusu larrien irudiak trukatzeari diete denei.



Barakaldokoaz gain, Irunen ere beste bat egin dute. Gainerakoan, probintzia hauetan egin dituzte: Madril (11), Bartzelona (8), Balearrak (4), Valentzia (3), Zaragoza (3), Alacant (3), Errioxa (2), Kantabria (2), Almeria (1), Burgos (1), Murtzia (1), Teruel (1), Coruña (1), Pontevedra (1), Lleida (1), Girona (1), Tenerife (1), Cadiz (1), Tarragona (1), Leon (1), Valladolid (1), Huelva (1), Toledo (1), Sevilla, (1), Malaga (1) eta Ciudad Real (1).

Urtebete eta erdi iraun duen ikerketan honetan izan diren atxilotuek 40 eta 60 urte artean dituzte, eta batzuk aurretik ere atxilotu dituzte delitu berberengatik.

Agenteek 39 miaketa egin dituzte, eta ordenagailu ugari, 173 disko gogor, eta 619 CD eta DVD konfiskatu dituzte. Horrez gain, bi errebolber aurkitu dituzte Murtzian egindako miaketan.

Espainiako Poliziaren arabera, atxilotuek haur pornografia trukatzeari zuten, *Peer to Peer* (P2P) sarean bidez.



## Bataclan aretoak bihar irekiko ditu atek Stingekin kontzertuarekin

Parisko Bataclan kontzertu aretoak bihar, azaroak 12, irekiko ditu atek berriro, eta Sting musikaria igoko da oholda gainera, abeslariak berak aurreko astean iragarri zuenez. Duela urtebete, azaroaren 13an, atentatu-olde batek Paris astindu zuen eta aipaturiko kontzertu aretoan 90 pertsona hil ziren.

Stingekin kontzerturako sarrerak asteartean jarri dituzte salgai eta ordubete baino gutxiagoan agortu dira. Sarrerekin lortutako dirua Life for Paris eta 13 Novembre: Fraternité Verité gobernuz kanpoko erakundeetara bideratuko dute.

Stingekin esanetan, Bataclanen irekierarekin Parisko atentatuetan hil ziren pertsona guztiak gogoratu eta omentzeaz gain, bizitzari gorazarre egin eta musika goraiatu nahi dute.

Duela urtebete, azaroaren 13an, atentatu-olde batek Paris astindu zuen eta 130 pertsona hil eta 350 zauritu ziren.

**LEONARD COHEN HIL DA**  
82 urte zituela hil da poeta, musikagile eta artista. Cohen 1934an jaio zen Westmount hiri kanadarrean eta 60. hamarkadan abiatu zen musikaren munduan. Azken diskoa, *'You want it darker'* urrian plazaratu zuen.

Jendurrean agertzeari utzi zion 2013an eta, azken hilabeteetan, etxetik irten barik egon da, sorbaldan mina zuelako. Izan ere, azken diskoa Adam bere semeak ekoitzi zuen eta etxeke sukaldean grabatu zuten.

## Kalamuak memoria murrizten du neuronen energian eragiten duelako

Zientzialari talde batek ikerketa baten bidez jakin ahal izan duenez, kalamuak memoria murrizten du substantzia horrek neuronen mitokondrian -burmuinaren zelulei energiaz hornitzen ditu- eragiten duelako. Baliteke aurkikuntzak marihuanarekin egindako sendagaietan ere eragina izatea.

## Euskal ikertzaile talde batek munduko lenterik txikiena sortu du

Donostiako Materialen Fisika Zentroko eta Donostia International Physics Center zentroko zenbait ikertzailek munduko lenterik txikiena sortu dute, Cambridgeko Unibertsitatearekin batera. Lenteak argia metroa baino mila milioi aldiz txikiagoak diren neurrietan harrapatzeko gai da, atomo bakarraren neurrian, hain zuzen ere.

## Maidar Undak erretiroa hartuko du



Hausnarketa sakon baten ondoren, orain bere bizitzan lehiaketa profesionala ez dela bere lehentasuna igarri zuen Maider Undak. Bere bizitzako beste esparru batzuek indar edo pisu gehiago hartu dutela baieztatu du borrokalariak, eta horregatik hartu du agur esateko erabakia.

Urte hauetan guztietan sekulako zorzea izan duela esan du arabarrak. Bere ibilbidean lortu dituen emaitzen artean azpimarragarriak dira, batez ere, 2008an Beijingen lortu zituen bosgarren postua eta diploma, Tbilisin (Georgia) jokaturako Europako Txapelketan lortutako zilarra, eta 2009 eta 2010ean Bakuko (Azerbaijan) eta Belgradeko (Serbia) Europako Txapelketetan eta 2009an Herning-eko (Danimarka) Munduko Txapelketan eskuratutako brontzeak. Ibilbideko puntu gorena 2012an lortu zuen: brontzezko domina irabazi zuen Londresko Olinpiar Jokoetan.

Borroka libreko puntako mailan aritu da Unda. Kirol honetan, bi borrokalari lehiatzen dira, parez pare. Batak bestea gainditu behar du tapiz baten gainean, inongo kolperik eman gabe. Aurkaria lurrera botata irabazten da. Hori bai, bere sorbaldak lurrera itsatsita mantenduz epailearen begiradapean. Edo besteari egindako ekintzekin edo teknikekin lortutako puntuekin.

## Movember 2016: Utz ezazu bibotea prostatako minbiziaren aurka!

Azaroa gizonen gaixotasunez ohartarazteko hilabetea da, Movemberren hila. 2016ko hau ez da salbuespena, eta gizon ugari hasi da bibotea uzten. Pertsonaia ezagunen artean, RETAbet Bilbao Basketeko lau jokalaria daude: Alex Mumburu, Axel Hervelle, Micheal Eric eta Sergio Llorente. Laurek ebaki dute bizarra, ez bibotea.

Baina... zer da Movember?



Gizartean gizonetzkoen osasunaren inguruan kontzientzia hartzeko eta, batez ere, prostata eta barrabiletako minbizia ikertzeko dirua biltzeko mundu mailako mugimendua da Movember – ingelesezko "moustache" eta "november" hitzekin sortutako akronimoa–.

Gero eta mugimendu ezagunagoa da, batez ere, mugimendu hori babesten dutenek azaroan bibotea uztea dutelako ezaugarri.

Movember mugimendua 2003an jaio zen, Australian. Melbourneko hainbat lagunek bibotea uztea erabaki zuten –bibotea inork gutxik uzten zuen garaian–, prostatako eta barrabiletako minbizia mahai gainean jartzeko asmoz. Pixkanaka-pixkanaka, ekimena beste lurralde batzuetara zabaldu da (Kanada, Zeelanda Berria, Erresuma Batua, AEB, Espainia), eta gaur egun mundu osoan zabalduta dago.

Movemberrek bi aurpegi ditu: kontzientzia hartzea eta dirua biltzea. Oro har, gizonen osasun arazoak ezkutatzeko joera dute, bereziki, prostatako edota barrabiletako gaitzak. Sei lagunetatik batek prostatako minbizia izan du edo izango du beren bizitzan zehar. Gai horretan oso garrantzitsua da gaitza garaiz antzematea, izan ere, garaiz antzemanaz gero senda daiteke. Horretarako, ordea, oso garrantzitsua da osasun probak garaiz egitea.

## EGURALDIA EURITSU

Larunbatean, bi egoera ezberdin izango ditugu: goiza ateri igaroko da baina egunaren bigarren partean euria egiten hasiko da. **Igandea** euritsua izango da eta zerua estalita agertuko da. Orokorrean, euri arina egingo du, baina arratsaldean litekeena da noizbehinka zaparradak mardulagoak izatea. Gaueko tenperaturak gora egingo du. Egunekoa, aldiz, baxuagoa izango da eta 15°C azpitik geratuko da.

